

HETEROTXOSTENAK

Autotxostenekin batera, heterotxostenak dira modurik ohikoena taldekideen arteko harremanen kalitateari buruzko informazioa eta jazarpen-egoeran dauden pertsonen inplikazio-mailari buruzkoa lortzeko.

Autotxostenetan, protagonistek eurek ematen dute gaiari buruzko ikuspegia, eta heterotxostenetan, berriz, beste bide batzuetatik lor daiteke taldean gertatzen ari denari buruzko informazioa: helduengandik, elkarriketen bidez, apreziazio-eskalekin, irakasleen balorazio-bileretan... Horrez gain, berdinen taldearen bidez ere lor daiteke informazioa, izendapen-teknikak erabiliz.

Berdinen taldeotan, taldekide bakoitzak bere iritzia azaltzen du gainerakoek jazarpen-dinamikan duten parte-hartzeari buruz, metodo soziometrikoen bitartez (talde osoak lantzen ditu).

Horri dagokionez, esan dezakegu, betiere behar den arretaz eta zuhurtziaz, heterotxostenek objektibotasun edo askatasun handiagoarekin ematen dutela jazarpen-egoeretan gertatzen denari buruzko informazioa.

Heterotxostenean, jazarpen-dinamikak gauzatzen dituztenen izenak, biktimizatzen direnen izenak eta biktimaren alde egiten dutenen izenak eskatzen dira. Modu horretan, talde osoan eragiten dugu, eta, horri esker, eskolako ekosisteman gertatzen denari buruzko irudi ahalik eta zehatzena osatu ahal izango dugu.

Gehien erabiltzen diren heterotxostenen ereduen artean, nabarmentzekoak dira *Sociobull*, hots, *Insebull* tresnaren barruko azpitesta (Aviles eta Eciles 2007), Fuensanta Cerezoren BULL-S eta Collel eta Escuderen CESC.